


DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

HEZKUNTZA SAILA

2018ko EPEa. BIGARREN HEZKUNTZA ETA LANBIDE HEZIKETA

OPE 2018. ENSEÑANZA SECUNDARIA Y FORMACIÓN PROFESIONAL


ESPEZIALITATEA / ESPECIALIDAD: PROCESOS GESTIÓN ADMINISTRATIVA



LEHENENGO PROBA – PROBA PRAKTIKOA (A ZATIA)

ARIKETA ZERRENDA ETA PUNTUAZIOA

ARIKETA ZERRENDA	PUNTUAZIOA
Ejercicio A	2,00
Ejercicio B	0,25
Ejercicio C	0,25
Ejercicio D	1,00
Ejercicio E	1,50
Ejercicio F	1,00
Ejercicio G	1,00
Ejercicio H	1,00
Ejercicio I	0,50
Ejercicio J	1,50
PUNTUAZIO TOTALA	10



PROPULSA S.A. enpresak, Zazpilanda kalea 21, 48031 Bilbao (Bizkaia) helbidea eta A48350275 IFK duenak, elikagaiak eta garbiketa-produktuak komertzializatzen ditu. BBVA bankuarekin dihardu, zeinek IBAN-zk.: ES9101820078901234567890 eta IAE 647.3 epigrafea baititu.

Enpresa horrek salmenta-baldintza orokor hauek ditu:

- Merkataritza-deskontua: %3
- Azkar ordaintzeagatikoko deskontua: %2
- Kobratzeko modua: ordainduko gurutzatu berezi bidez, fakturaren datatik 30 egunera.

A ARIKETA

PROPULSA S.A. enpresak ERREKA enpresaren 48 zk.ko eskabidea jaso du; ERREKA txikizkako merkataria da, baliokidetasun-araubideari atxikia, 72333455W IFZ duena, eta helbidea Done Bikendi kalea 53, 48777 Bilbao (Bizkaia); Bankinter bankuarekin dihardu, zeinek IBAN-zk.: ES1710128135488987654321 baitu. Hona hemen eskatutako artikuluak:


- 10 esne-kutxa, bakoitza 6 unitatekoa, 0,60 €/unit.
- 2 detergente-kutxa, bakoitza 10 unitatekoa, 5 €/unit.
- 5 piper-poto-kutxa, bakoitza 25 unitatekoa, 2,50 €/unit.

Enpresak eskabidea onartu du.

Eskatutako salgaiak bidali zaizkio, 320 zk.ko albaranarekin. Gainera, promozioa egiteko asmoz, paperezko mukizapi berrien laginak bidali zaizkio, 5 € balio dutenak.

ESKATZEN ZAIZU:

- **250 zk.ko faktura egizu, 2018ko ekainaren 21 datarekin, kontuan harturik enpresaren salmenta-baldintza orokorrak zein diren eta fakturan jasotako gastu hauek gastuak, kontuan harturik kutxa kopuruaren arabera banatzen direla.**
 - Enbalaje-gastuak, 10 €
 - Garraio-gastuak, 50 €



B ARIKETA

ERREKA enpresa txikizkako merkataria da, baliokidetasun-araubideari atxikia, 72333455W IFZ duena, eta helbidea Done Bikendi kalea 53, 48777 Bilbao (Bizkaia); Bankinter bankuarekin dihardu, zeinek IBAN-zk.: ES1710128135488987654321 baitu.

250 zk.ko faktura jaso ostean,

ESKATZEN ZAIZU:

- **Kalkula ezazu eskuratutako salgaien kostua zein den, kontuan harturik gastuak kutxa kopuruaren arabera banatzen direla.**

C ARIKETA

ERREKA enpresa txikizkako merkataria da, baliokidetasun-araubideari atxikia, 72333455W IFZ duena, eta helbidea Done Bikendi kalea 53, 48777 Bilbao (Bizkaia); Bankinter bankuarekin dihardu, zeinek IBAN-zk.: ES1710128135488987654321 baitu.

ESKATZEN ZAIZU:

- **250 zk.ko faktura ordaindu, data 2018ko ekainaren 30 izanik.**


D ARIKETA

ARDE S.A. enpresa, ate eta leihoen fabrikatzailea, A48765432 IFZ duena, eta helbidea Iturburu kalea 37, 48213 Durango (Bizkaia). Datu hauek eman ditu 1000 unitate fabrikatzeko:

- Lehengaien kontsumoa: 80.000 €
- Kudeaketa- eta garbiketa-gastuak: 12.000 €
- Zuzeneko eskulana: 22.000 €
- Lokalaren alojera: 4.800 €
- Kontsumituriko energia: 2.500 €
- Lokalaren aseguruua: 2.000 €

ESKATZEN ZAIZU:

- **Kostu finkoak**
- **Kostu aldakorrak**
- **Kostu osoa**
- **Errentagarritasun-atalasea 500 €-ko salmenta-prezio baterako**



E ARIKETA

PROPULSA S.A. enpresak, Zazpilanda kalea 21, 48031 Bilbao (Bizkaia) helbidea eta A48350275 IFK duenak, elikagaiak eta garbiketa-produktuak komertzializatzen ditu. BBVA bankuarekin dihardu, zeinek IBAN-zk.: ES9101820078901234567890 eta IAE 647.3 epigrafea baititu.

Bizkaiko Lurralde Historikoan egiten ditu bere merkataritza-eragiketa guztiak.

3. hiru hilekoaren datuak:

SALMENTAK:

- 200.000 € tasa orokorrari lotuak (BEZa sartu gabe), zeinetatik 25.000 € baliokidetasun-araubidez saldu baitira.
- 50.000 € tasa gutxituari lotuak (BEZa barne)
- Esportazioak: 30.000 € tasa orokorrari lotuak (BEZa sartu gabe)
- Komunitate barruko entregak: 10.000 € tasa orokorrari lotuak (BEZa sartu gabe)


EROSKETAK ETA GASTUAK (BEZa sartu gabe):

- Elektrizitatea: 4.500 €
- Tasa orokorrari loturiko salgaiak: 25.000 €
- Bulegoko tresneria: 2.000 €
- Tasa gutxituari loturiko salgaiak: 10.000€
- Soldatak: 21.000 €
- Aseguruak: 2.500 €
- Gizarte-segurantza: 5.000 €
- Salgaiak garraiatzeko furgoneta: 28.000 €
- Tasa orokorrari loturiko inportazioak: 20.000 €
- Tasa orokorrari loturiko komunitate barruko erosketak: 15.000 €

Konpentsazioa: Aurreko hiru hileko aitortpenak 500 € saldoa eman zuen enpresaren alde, eta aitortpen honetan konpentsatuko da.

ESKATZEN ZAIZU:

- 2018ko 3. hiru hileko BEZaren aitortpena egizu eta likidazio-inprimakia bete ezazu.



F ARIKETA

BEZaren araudia kontuan harturik,

ESKATZEN ZAIZU:

- Azaldu, labur, aurreko ekitaldiko likidazioa egiteko erabili diren irizpideak.

G ARIKETA

ARDE S.A. enpresa, ate eta leihoen fabrikatzailea, A48765432 IFZ duena, eta helbidea Iturburu kalea 37, 48213 Durango (Bizkaia). Datuok eman ditu:

Enpresaren jarduera, 312 egun/urte. Gaur egun 145.000 unitate behar ditu urteko. Hornitzaileak 5 eguneko entrega-epea du, eta egun bi gehiago atzeratu daiteke.

Eskabidearen kudeaketa-kostua: 10,50 €

Biltegiaritze-kostua unitateko: 0,80 €

ESKATZEN ZAIZU:

- Erosketa Lote Ekonomikoa kalkula ezazu
- Segurtasun-stocka
- Eskabide-puntua
- Urteko eskabideen kopurua

H ARIKETA:


Iker Okina Bengoa 2018ko maiatzaren 15ean enpresatik kanporatu dute bidegabeko kaleratze.

2010eko urtarrilaren 1ean hasi zen enpresan.

1.280 €-ko hileko soldata izan du, eta aparteko ordainsari bi, bakoitza 900 €-koa

ESKATZEN ZAIZU:

- Dagokion kalte-ordaina kalkula ezazu.



IARIKETA:

ARDE S.A. enpresa, ate eta leihoen fabrikatzailea, A48765432 IFZ duena, eta helbidea Iturburu kalea 37, 48213 Durango (Bizkaia). Datuok eman ditu:

Pertsonalburua Asunción Lasa Orue da, 14365432K NAN duena.

2018ko uztailaren 21ean, Pedro Fernandez Arriek, 43567888Ñ duenak, eskatu du ziurtagiria egiteko ezen urte horretan bertan sei hilabetez enpresan jardun duela lanean, administrazioko laguntzaile eginkizunetan.

ESKATZEN ZAIZU

- **2018ko uztailaren 25 data duen ziurtagiria egizu**

JARIKETA:

Lanean zabiltzan Lanbide-heziketa Ikastetxe Integratuan esleitu dizute Administrazio-kudeaketako Zikloaren Erdiko Graduko 1. mailako tutoretza.

ESKATZEN ZAIZU

- **Kronograma batean jaso behar dituzu tutorearen funtzioak betetzeko planifikatuko liratekeen akzioak, atazak edota landu beharreko gaiak, zeintzuk ekintza-plan tutorialaren parte edo tutoretzaren programazioarena izango bailirateke. Zerrendatu erabili beharreko baliabideak (hezkuntzako araudia...).**